



## 2023ko UZTAILAREN 21eko GEHIGARRIA, 2022ko AZAROAREN 11ko EBAZPENARENA

1. EKINTZA GAKOAREN barruan (PERTSONEN MUGIKORTASUNA), Erasmus+ KA131 programak urtero ezartzen ditu Erasmus+ proiektu batean parte hartzen duten ikasleen artean agentzia nazionalak bana ditzaketen gutxieneko eta gehieneko zenbatekoak. SEPIE agentzia nazionalak (Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzuak) Erasmus+ mugikortasun-motetan parte hartzen duten ikasleek jaso beharreko zenbatekoak ezartzen ditu urteko proiektuen bidez.

Aurrekoarekin bat etorritz, Errektoreordetza honen 2022ko azaroaren 11ko Erasmus+, Latinoamerika, Beste Norakoak 2023/24 deialdiaren ebazpenak 8. atalean adierazten duenez, ebazpena – Erasmus+ KA131 2022 proiektua – argitaratu zenean indarrean zegoen proiekturako SEPIEk onartutako zenbatekoen arabera, hiru herrialde-taldeei dagozkien Erasmus+ oinarritzko laguntzen zenbatekoak honako hauek dira:

- 1. Taldea: 310€/hilean
- 2. Taldea: 260€/hilean
- 3. Taldea: 210€/hilean

Ondoren, 2022ko abenduaren 20an, SEPIEk hurrengo proiektuaren – KA131 2023 – ezaugarriak argitaratu zituen, eta horien artean, aurreko proiektuarekin alderatuta, oinarritzko laguntzen zenbatekoak handitu zituen. Hauek izango dira laguntzak:

- 1. Taldea: 350€/hilean
- 2. Taldea: 300€/hilean
- 3. Taldea: 250€/hilean

2023/24 ikasturtean, 2022ko azaroaren 11ko mugikortasun-deialdian esleitutako Erasmus+ mugikortasunetarako laguntzak KA131 2022 eta KA131 2023 proiektuen funtsekin finantzatu dira. Proiektu horiek SEPIEk onartutako zenbatekoak dituzte. Horrek aldeak sor ditzake parte-hartzaileek jasotzen duten oinarritzko zenbatekoan, SEPIEren oinarritzko laguntza zein proiektutatik jasotzen duten kontuan hartuta.

Bestalde, SEPIEk banatutako Europako funtsetatik datorren Erasmus+ oinarritzko laguntzaz gain, [Eusko Jaurlaritzak laguntza osagarri bat eskaintzen du](#) urtero, Erasmus+ mugikortasuna egiten duen Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ikasle bakoitzak hileko zenbateko oso berdina jaso dezan. 2022/23 ikasturtean, Eusko Jaurlaritzak KA131 2022ren oinarritzko laguntza guztiak osatu zituen, hileko 350 €ra iritsi arte.



2024/25 ikasturterako Eusko Jaurlaritzaren laguntza osagarriaren zenbatekoak, KA131 2022 eta KA131 2023 proiektuetako Erasmus+ oinarritzko laguntzak jasotzean dauden aldeak **berdinduko ditu**, gutxienez 350 €/ hileko kopururaino iritsiz, **laguntza garaiz eta behar bezala eskatzen duen EAEko egoiliar bakoitzarentzat**.

Parte hartzen duen ikasle bakoitzaren **finantzaketa-aukerak ahalik eta handienak izateko, HONAKOA ADIERAZTEN DUT:**

1. Erasmus+, Latinoamerika, 2023/24 Beste Norakoak deialdian onartutako Erasmus+ mugikortasuna duen **EAEko ikasle egoiliar bakoitzak** dirulaguntza handiena eskuratu ahal izateko, **Eusko Jaurlaritzaren laguntza osagarria eskatu beharko du eskabidea egiteko epea irekitzen denean.**

Eskaera hori garaiz eta behar bezala aurkezten ez bada, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzeko Errektoreordetzak ezin izango du KA131 2023 proiektuko dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa bermatu.

2. Erasmus+, Latinoamerika, Beste Norakoak 2023/2024 deialdian onartutako Erasmus+ mugikortasuna duen **EAEko Ikasle EZ egoiliar bakoitzak abuztuaren 4ra arteko epea du (4a barne), [nazioartekoak.mugikortasuna@ehu.eus](mailto:nazioartekoak.mugikortasuna@ehu.eus) helbidera azken hiru hilabeteetan igorritako erroldatze bat bidaltzeko, EAetik kanpo bizitza justifikatuz.**

Erroldatzea jaso ondoren, Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak KA131 2023 proiektuari dagokion Erasmus+ oinarritzko laguntza esleituko dio ikasle interesdunari.

Agiri hori garaiz eta behar bezala aurkezten ez bada, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzeko Errektoreordetzak ezin izango du bermatu KA131 2023 proiektuko dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa.

M. Juncal Gutierrez Mangado  
Euskara, Kultura eta Nazioartekotzeko Errektoreordea